Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

HERRIZAINGO SAILA

4013

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 24koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritarren Segurtasuneko Ofizialondoko plazak, 2008ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bitartez deitutakoak (2008ko martxoaren 6ko EHAA, 47 zk.), 30eko kopurura gehitzen dituenekoa.

2008ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bitartez (2008ko martxoaren 6ko EHAA, 47 zk.) Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritarren Segurtasuneko Ofizialondoko Kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako deia egin zen.

Deialdi horren xedea barne promozioz Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritarren Segurtasuneko Ofizialondoko izateko 20 plaza betetzea izan zen. Plaza horiek betetzeko, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen C Taldeari dagokion mailako titulazioa eskatu zen eta plaza guztiek izan zuten Ertzaintzaren I. hizkuntza-eskakizuna.

Deitutako plazen artetik, 10 plaza emakumeek betetzeko ziren, eta beste 10 plazak puntuaziorik altuena lortzen zuten gainontzeko hautagaiek betetzeko.

Esandako deialdiaren lehenengo oinarriak berak ezartzen zuen, posible zela deitutako plazen kopurua gehitzea; horrela izanez gero, argitaratu egingo zela eta, gehitutako plazen kopurua jakinaraziko zela, emakumeek beteko dituzten plazen kopurua adieraziz, deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

Hori dela-eta, Herrizaingo Sailak ezarritako helburuekin bat etorriz eta horretarako Segurtasun sailburuordeak egindako eskaera kontuan izanik,

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Herritarren Segurtasuneko Ofizialondoko 20 plazei 10 plaza gehitzea; horrela, 30era iritsiko da deitutako plaza kopurua. Lehengo 20 plazak 2008ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bitartez deitu ziren (2008ko martxoaren 6ko EHAA, 47 zk.); plaza horiek betetzeko, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen C Taldeari dagokion mailako titulazioa eskatu zen eta plaza guztiek izan zuten Ertzaintzaren I. hizkuntza-eskakizuna.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

4013

RESOLUCIÓN de 24 de junio de 2009, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se amplían a 30 las plazas de Suboficial de Seguridad Ciudadana de la Escala de Inspección de la Ertzaintza convocadas mediante Resolución de 11 de febrero de 2008 (BOPV n.º 47 de 6 de marzo de 2008).

Mediante Resolución de 11 de febrero de 2008 (BOPV n.º 47, de 6 de marzo de 2008) fue convocado procedimiento selectivo para ascenso a la Categoría de Suboficial de Seguridad Ciudadana de la Escala de Inspección de la Ertzaintza.

El objeto de dicha convocatoria consistía en la cobertura por promoción interna de 20 plazas de Suboficial de Seguridad Ciudadana de la Escala de Inspección de la Ertzaintza, correspondientes con el Grupo C de clasificación de los funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas en función de la titulación exigida para el ingreso, todas ellas con perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza.

De entre las plazas convocadas, 10 habían de ser cubiertas por mujeres y otras 10 por el resto de aspirantes que mayor puntuación hubiesen obtenido.

La propia base primera de las de la mencionada convocatoria establecía la posibilidad de ampliar el número de plazas convocadas requiriéndose en tal caso la correspondiente publicación, así como la determinación del número de plazas y el número de las mismas reservadas para mujeres, respetándose la proporción establecida en las bases de la convocatoria.

Por ello, y de acuerdo con los objetivos establecidos por el Departamento de Interior y atendida la solicitud efectuada por el Viceconsejero de Seguridad en tal sentido

RESUELVO:

Artículo único.– Ampliar en 10 las 20 plazas de Suboficial de Seguridad Ciudadana de la Escala de Inspección de la Ertzaintza, correspondientes con el Grupo C de clasificación de los funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas en función de la titulación exigida para el ingreso, todas ellas con perfil lingüístico 1 de la Ertzaintza, convocadas mediante Resolución de 11 de febrero de 2008 (BOPV n.º 47 de 6 de marzo de 2008), alcanzando en esta forma un total de 30 el número de plazas convocadas.

Gehitutako 10 plazek Ertzaintzaren 1. Hizkuntza-eskakizuna daukate, derrigortasun datarik gabe; 5 plaza emakumeek beteko dituzte eta beste 5 plazak puntuaziorik altuena lortzen duten gainontzeko hautagaiek, goian aipatutako deialdian ezarritako betekizunekin bat etorriz.

Arkaute, 2009ko ekainaren 24a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.

Las 10 plazas ampliadas tienen asignado el Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza, sin fecha de preceptividad; reservándose 5 de ellas para su cobertura por mujeres y otras 5 por el resto de aspirantes que mayor puntuación hubiesen obtenido, en las mismas condiciones que las establecidas en la convocatoria de referencia.

En Arkaute, a 24 de junio de 2009.

El Director de la Academia de Policía del País Vasco,
JUAN DE DIOS URIARTE ARCINIEGA.